

Film hauen artean Urrezko Maskor bat dago

Eskaintza orekatua 63. Donostiako Nazioarteko Zinemaldiko Sail Ofizialean, gustu diferenteetako publikoak asetzeko modukoa eta sorpresaren bat gorde dezakeena. Hauek dira arreta eragin diguten titulu eta zuzendariak eta haien aurrekariak.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |



Agustí Villarongak 1990eko Kuban giratu du *El rey de la Habana*, Sail Ofizialean aurkeztuko duen filma.

GONBIDATU BERRIAK eta Zinemaldiaren aspaldiko lagunak elkartuko ditu aurten Sail Ofizialak. Urrezko Maskorrenegatik lehiatuko diren filmen artean Terence Davies zuzendariaren izenera jo dute azken urteotan festivalaren gorabeherak jarraitu dituztenek: 2011. urtean *The Deep Blue Sea*ekin zapore ona utzi zuen arren, saririk gabe itzuli zen etxera eta aurten *Sunset Song*en kontatzen duen XX. mende hasierako maitasun istorioarekin sariren bat jasotzeko hautagaia dirudi. Zuzenda-

riaren ibilbidea errepasatuta, faboritoen zerrendan agertzeko meriturik ez zaio falta.

Baina gero batek daki. Sail Ofizialak hori dauka, aurretik txukunenak diruditen lanek pott egiten dutela eta dantzara inork gonbidatzen ez zuen filmak jasotzen duela moluskoa. Filmak ikusi aurretik haietaz espero daitekeenaz hitz egitea Gerologia eta Bihartika karrera ikasi zutenen lana izan beharko litzateke, baina ez daukagu eskura horietako bakar baten telefonorik. Zinemaldiko filmen zerrenda besterik ez.

Daviesekin batera, festibaleko sail inportanteenera itzuliko dira kontuan hartzeko moduko beste bi zuzendari. Agustí Villaronga mallorkarrak 2010ean *Pa negre*ekin jo zuen kolpea errepikatu nahi du —emakumezko aktore onenaren zilarrezko maskorra jaso zuen Nora Navasek eta izandako harrera beroak bidea erraztu zion katalanez errodatutako film garrantzitsuenen zerrendan sartzeraino—. *El rey de la Habana*ekin dator zuzendari beteranoa, 1990eko hamarkadako gazte kubatarren istorioa.

Txalo gutxiagorekin pasa zen duela bost urte Liu Hao txinatarra —ez nahastu izen eta nazionalitate bereko pisu-altxatzailearekin, otoi—: aurten aurkeztuko duen *Xiang bei fang* filmak inguru hauetan oso ezaguna ez den problematikari heldu dio, Txinako familiak haur bakarra edukitzera behartzen dituen politikak zer egoeratan uzten dituen umea galtzen duten gurasoak.

Rebordinosen kuttunak?

Jose Luis Rebordinosek Fantasiatzko eta Bel-durrezko Zinema Astea utzi eta Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren lema hartu zuten filmen hautaketan aldaketa txiki batzuk sumatu ziren. Genero-zinemako lanak Sail Ofizialean sartzen hasteak jaialdiari freskotasuna erantsi zion, batzuei asko gustatu ez arren —ezta, Arturo Ripstein?—.

Ez dakigu Rebordinosen eskuak zenbat daukan ikusteko edizio hone-tan lehiatuko diren bi ekoizpenetan: Mamoru Hosodak *Bakemono no ko* animaziozko filma ekarriko du; animearen munduan oso ezaguna den *One Piece* sailean lan egindakoa da, baita Toei Animation etxean ere —*Dragoi Bolaren* faktorian, alegia—.

Ben Wheatleyren ibilbidea bestelakoa da, bel-durrezko filmak eta komedia beltz bat dauzka curriculumean, *Doctor Who* telesail britainiar ezaguneko kapitulu batzuez gain. *High-Rise* aurkeztuko du Donostian, 1975eko Londresen girotutako itxura oneko istorio bat.

Promesa berriak eta itzulerak

Zinema europarraren etorkizuneko figura garrantzitsu gisa erretratatu dute zenbaitek *Sparrows* filma zuzendu duen Rúnar Rúnarsson. Bigarren film luzea du, baina ez da hasiberria. 25 urte besterik ez zituenean bere aurpegi zurbil islandiarra paseatu zuen 2005eko Oscar sarien galatik. *The Last Farm* hark ez zuen urrezko estatua lortu, baina bai zuzendariaren proiektioaz hitz eginaraztea. Hamar urte geroago, zer gehiago ikasi duen ikusteko gogoia ematen du.

Hamaika urte pasa dira Lucile Hadzihalilo-

Aurreiritzien kontra egin beharko du Amamak

OHITU EGINGO GARA AZKENEAN Sail Ofizialean euskarazko filmak ikustera. Asier Altunaren *Amamak* lekukoa hartuko dio iaz harrera beroa izan zuen *Loreaki*, oso pelikula diferentearekin. Errealismoa eta surrealismoa uztartuz, eta XX. mendeko euskal arte garrantzitsuenaren imaginarioa gaur egungo bizimoduarekin elkarriketan jarritz.

Zailtasun extra bati egin beharko dio aurre Altunaren lanak: iaz *Loreakek* aurreiritzi asko—*El País*eko kritikari-izarra den Carlos Boyerorena, adibidez—hankaz gora bota zituen istorio urbano eta intimista batekin. Baina aurreiritzi horiek hor daude oraindik Euskal Herriko bizimodu tradizionala pantailaratze-ri dagokionez. Zenbateko pisua izango du ideologiak film hau baloratzerako orduan?

vic zuzendariak Donostiara *Innocence* ekarri zuenetik. Zabaltegi-zuzendari berri onenaren saria besapean itzuli zen etxera, erabaki nahiko eztabaidatua portzieto; eta geroztik ez du material berririk pantailaratu —gero esango dute Donostiako eguraldia ez dela deprimitzeko modukoa—. *Evolution* aurkeztuko du aurten, abiapuntu misteriosua duen filma.

Raising Victor Vargasekin Donostian sari txiki bat lortu ondoren Champions Leaguean jokatzera datorren beste zuzendari bat Peter Sollett da. Julianne Moore protagonista duen *Freeheld* benetako gertakarietan oinarrituta dago, lesbiana bikote batek berdintasunaren alde egindako borroka ardatz hartuta.

**Terence Davies
beteranoa 2011. urtean
esku hutsik itzuli zen;
Sunset Songekin zorte
hobea izango ote du?**

Seguru zerbait irabaziko dutela

Ez da gauza berria Zinemaldiak ekoizpen iberikoei faborezko tratua ematen diela pal-maresean. Horregatik, komeni da begirik ez kentzea Cesc Gayren *Trumani* —Ricardo Darín eta Javier Cámara protagonista— eta *Eva no duerme* hispano-argentinarrari. Imanol Arias du protagonista azken horrek: 1987an bezala gizonezko aktore onenaren Zilarrezko Maskorra lortzeko aukera izan dezake sonotoneak iragartze-erri esker bigarren gaztaro interpretatiboa bizi duen ermuarrak.

Dena den, ez dakit zergatik saiatzen garen. Seguru azkenean telegrama batean bezala aipatuko ditugun *21 nuits avec Pattie*, *El Apóstata*, *Les Chevaliers Blancs*, *Les démons*, *Moira* edo *Un día perfecta per volar* izango direla aurtengo txalotuenak. Merkezurreko kristalezko bolaren bat erosi izan bagenu sikiera artikulua hau idazten hasi aurretik. ■